



**A) BEZaren araudia eta aldaketak:**

Aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko **20/2012 Errege Dekretu-Legeak** berritasun batzuk sartu ditu BEZ (Balio Erantsiaren gaineko Zerga) motei dagokienez. Aldaketa horiek berdin aplikatu behar dituzte Foru Ogasunek.

Zehazki, nabarmentzekoa da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa orokorra eta murriztua igo egingo direla: ehuneko 18 eta 8tik 21 eta 10era, hain zuzen.

Kontuan izan behar da lehen % 8ko tasa murriztua zuten zerbitzu batzuk % 21eko tasa orokorrera igaroko direla irailaren 1etik aurrera. Horien artean daude telebista digitaleko zerbitzuak.

**B) Euskaltelen izango duen eragina, praktikan**

**1. 2012ko irailean igorriko den abuztuko fakturan, hauei aplikatuko zaie:**

a) Bezeroari etenik gabe ematen zaizkion zerbitzuen kasuan (telefonía, Interneterako sarbidea...), BEZ mota berria aplikatzen zaie (% 21), legeak adierazten baitu faktura ordaintzea eskatzen zaion datan indarrean dagoen BEZa aplikatu behar dela. Kasu honetan irailean denez, BEZ mota berriak dagoeneko indarrean egongo dira.

✓ % 21eko BEZa:

- Telefonía finkoa, mugikorra, Banda Zabala eta Internet zerbitzuetako hileko kuotak.
- Telefonía finkoa, mugikorra, Banda Zabala eta Internet zerbitzuetako kontsumoak.
- Fakturan datozen aurreko kontsumoak eta kuotak (maiatzekoak, ekainekoak edo uztailekoak).
- Aldizkako ekipamendu-alokairuak.

b) Irailaren 1a baino lehen egindako ondasun-entregai edo emandako zerbitzuei BEZ-tasa zaharra ezarriko zaie (% 8 edo % 18), legearen arabera, ekipoa entregatutako datan edo zerbitzu jakin bat emandakoan dagokion BEZa ezarri behar delako.

✓ % 18ko BEZa, kontzeptu hauei:

- Telefonía finkoa, mugikorra, Banda Zabala eta Internet zerbitzuetako alta-kuotak.
- Ekipoen salmenta: terminal mugikorrak, deskodetzaileak, set top box...
- Instalazioak, hargune gehigarriak, joan-etorrien kostuak...
- Fakturan sartzeko aurrez ordaintzeko edozein kargatze-mota, irailaren 1a baino lehen egindakoa, bai mugikorrekoa, bai Banda Zabalekoa.

✓ % 8ko BEZa:

- Telebista Digitaleko kontsumoak (PPVko ekitaldiak)



**2. Iraileko eta ondorengo fakturretan, tasa hauek ezarriko dira:**

- ✓ % 21eko BEZa, kontzeptu hauei:
  - Telefonía finkoa, mugikorra, Banda Zabala, Internet eta Telebista Digitalako zerbitzuetako kuotak eta kontsumoak.
  - Ekipoen salmenta: terminal mugikorrek, deskodetzaileak, set top box...
  - Instalazioak, hargune gehigarriak
  - Fakturan sartzeko aurrez ordaintzeko modalitateko kargatzeak
  - Aldizkako alokairuak